

## OHIKO GALDERAK

- **Amaiak lan egin nahi du. INEMeko bulegoan inskribatuta egon behar al du?**  
Ez da nahitaezkoa. INEMeko bulegoetan inskribatuta egotea ez da langilearen betebehar bat (legez finkatutako hobari eta onurak jaso nahi direnean izan ezik 45 urtetik gorako langabetuen kasuan adibidez-).
- **Lan-elkarrizketa batean edo langileak hautatzeko galdera-sorta batean, izangaia behartuta al dago bere intimitateari, egoera zibilari edo aurrekari penalei buruzko galderei erantzutera?**  
Ez, galdera horien edukia interesatuaren alderdirik pertsonalenarekin du zerikusia eta lan-harremanetatik kanpo utzi behar da.
- **Iker INEMeko bulegoan inskribatuta dago eta enplegu-eskaintza bat jaso du erakunde horren bitartez. Behartuta al dago eskaintza hori onartzera?**  
Iker INEMen kargura langabezia-saria jasotzen ari den ala ez hartu beharko da kontuan. Jasotzen ez badu ez du onartu beharko baina, behin eta berriz gauza bera egin ez gero, INEMek baja eman diezaioke.  
Langabezia-saria jasotzen badu aldiz, INEMek sari horren ordainketa eten ahal izango du eskaintza jakin batzuk baztertu badira (gizarte-lankidetzako lanak, enplegu-programak, enplegua sustatzeko programak eta abar).
- **Noiz izaten da “sexu-erasoa” lanean?**  
Enplegu-emaileak edo lankideek emakumearen edo gizonaren duintasunari eraso egiten dioten sexu-izaerako portaera jakin batzuk (hitzezkoak zein fisikoak) agertzen dituztenean.
- **Zer egin behar da “sexu-eraso” baten kasuan?**  
Egoera hau jasaten duen langileak Lan Ikuskaritzan salatu behar du. Halaber, enpresaren aurkako demanda bat aurkeztu ahal izango du Lan Arloko Epaitegiaren aurrean.  
Erasoa lankide batek egiten badu, enpresariaren, enpresa-batzordearen edo Lan Ikuskaritzaren aurrean salatu behar du.  
Kontuan hartu behar da sexu-erasoa Kode Zibilak kartzela-zigorrekin zigortzen duen delitua dela. Beraz, Guardiako Epaitegian sala daiteke edota delituaren ondoriozko erantzukizun penalak eta zibilak eskatuko dituen kereila bat aurkez daiteke (abokatuak eta prokuradoreak sinatua).



- **Enpresariak soldata-diferentzia batzuentzako kopuru batzuk zor dizkio Ikerri. Ba al da eperik Ikerrek kopuru horiek erreklamatu ahal izateko?**  
Urtebeteko epea dago. Erreklamazioa BAAZean egingo da eta, bi alderdien artean akordiorik izan ezean, Ikerrek demanda bat aurkeztu beharko du Lan Arloko Epaitegiaren aurrean 30 laneguneko epean.
- **Amaiaren osaba-izebek lana eskaini diote beren enpresan. Ba al da eragozpenik Amaiak lana onartzeko?**  
Ez, bat ere ez.
- **Andoni iraupen jakineko lan bat egiteko kontratatu dute. Kasu honetan ezar al daiteke probaldirik?**  
Bai; lan-kontratuaren kaltetan izan gabe, probaldi bat ezar daiteke (bi alderdiek probaldia salbuestea adosten dutenean izan ezik).
- **A Amaia le han ofertado un trabajo por un día. ¿Se puede firmar el contrato de trabajo para trabajar un día?**  
Sí, ya que la ley permite la libertad de contratar por el tiempo que ambas partes acuerden, por horas, por días, por semanas, etc.
- **Andoni tiene una empresa con varios empleados. ¿Puede exigir a los mismos que realicen horas extraordinarias?**  
No existe tal obligación por parte de los/as trabajadores/as, salvo que se hubiera pactado en el contrato o en el convenio con el tope legal, o para reparar daños o siniestros en la empresa.  
En todo caso, existe total prohibición de realizar horas extras a los menores de 18 años.
- **¿Está permitido pagar un salario inferior al mínimo interprofesional?**  
No. Es ilegal (salvo contratos en prácticas).

ITURRIA: <http://www.justizia.net>

